

**“ABOKATU EUSKALDUNAK” BATZORDEKO 2015.**  
**URTEKO TXOSTENA**

2015. urtean zehar hauexek izan dira ekimen azpimagarrienak:

- “Auzia Euskaraz” proiektua zabaldu da abokatuen artean. Bereziki baloratzen dugu “E-toolbarra” doako sistema informatikoa –testu juridikoak itzultzeko oso baliogarria-hainbat abokatu bulegotan instalatu dena. Ekimen honetan “Abokatu Euskaldunak” batzordeak aktiboki kolaboratu du.
  
- 2015eko uztailean proposamen zehatz bat egin genion geure Bazkuneko Batzari: dinamizatzaile-trebatzaile bat kontratatzea, geure lanbidean euskararen erabilera bultzatzeko eta errezteko asmoz. Batzaren erabakia horren aldekoa izan da eta hemendik gutxira errealitate bihurtuko delakoan gaude.
  
- 2015eko amaieran ezagutu dugu Europako Ministro Kontseiluko memoria non 2014eko urriaren 7an Europako Kontseiluko hainbat aditurekin geure batzorkide batzuk bildu ostean guk bidalitako txostenean adierazten dena jasotzen den, hain zuzen ere, euskararen erabileraren egoera latza justizia auzitegietan, eurogutunaren 9. artikulua aplikazioan. Legearen urraketa errealitate bat dela islatzen da esandako memorian.
  
- 2015eko azaroaren 26an afari – kolokio bat izan geure Dekanoarekin, Carlos Fuentenebrorekin. Gaia hauexek: “Bizkaiko Abokatuen Elkargoak euskararen erabileraren normalizazioan defendatzen duen eredia, abokatutzan zein justizia arloan, proiektu eta proposamen zehatzak barne”.
  - Afari – kolokio honen ondorioz, eta Dekanoak eskatuta, Bizkaiko Abokatuen I. Kongresoari begira, geure Batzordeak konpromezua hartu zuen hainbat tailer euskaraz antolatzeko, eta lau hauen ardura hartu zuen:
    1. Lan jurisdikzioa: irazpena eta kalte-ordainak.

2. Zigor jurisdikzioa: prozedura kriminalaren legean egondako azken erreformak, 41/15 zki.ko Legea eta 13/15 zki.ko Lege Organikoa.
3. Jurisdikzio Zibila: Kontsumitzaileen eskubideak; hegazkin konpainiekin ematen diren ohiko auziak.
4. Jurisdikzio Zibila: 5/2015 zki.ko Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legea.

- 2015ean, lehen aldiz, prozedura judizial bat euskaraz abiarazi du Bizkaiko Abokatu Elkargoak. Bermeoko Udalak aholkularitza juridikoa kontratatzeko lehiaketa bat ireki zuen eta bertako pleguetan agertzen ziren baldintzak zehazgabeak eta legearen aurkakoak izan zitezkeelakoan, horien aurkako errekurtsioa aurkeztea erabaki zuen Gobernu Batzordeak, abokatu guztien aukera berdintasunaren mesedetan. Espediente osoa eta Bermeoko Udalaren izapidetze guztiak euskaraz zirela ikusita, euskaraz jardutea erabaki zuen, eta horrela aurkeztu zuen berraztertze errekurtsioa, bide administratiboan. Gerora, Administrazioarekiko Auzibideko errekurtsioa ere euskaraz aurkeztu zen. Egun, badirudi Bermeoko Udalak atzera egin eta plegu berriak onartu dituela. Beraz, prozedura judiziala oraindik formalki amaitu ez den arren, badirudi errekurtsioak zuen asmoa bete dela.

Bilbon, 2016ko martxoaren 14an.

“Abokatu euskaldunak” Batzordea